Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Katalin Bengoa Madariaga

Bermeo, Bizkaia
(1917-2023)



Aurkibidea

Biografia



1917. urteko Santa Katalina egunean jaio zen Ibarrangeluko Arriederran. Ama bertakoa zuen eta aita Legutiokoa. 13 neba-arrebatatik laugarrena izan zenez, gaztetatik hasi behar izan zen beharrean. Eskola utzi ostean, Ibarrangeluko taberna batean ibili zen lanean Eibarreko familia batengana joan aurretik. 16 urtegaz Bermeoko Mokoneko aldatzera joan zen neskame eta ez zen gehiago bere herrira bueltatu. Soledad 'Tutu'k lagunduta kontatu zizkigun antzinako bizipenak.

Zintak

BRM-087

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-07-13
- **Iraupena**: 61 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Elizondo, Iratze

BRM-088

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-07-13
- **Iraupena**: 69 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Eskolako eta umetako kontuak

- **Erref**: BRM-087/008
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 00:11:47. **Bukatu**: 00:15:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Ibarrangeluko eskolan ikasi zuen eta oso gustura joaten zen. Gerora Zendokiz

auzoko eskolara joan zen bertan liburuak debalde baitziren. 16 urterekin Bermeora etorri zen neskame.

2. 13 neba-arreba

- **Erref**: BRM-087/010
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:16:03. **Bukatu**: 00:17:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ibarrangeluko Ibaetako eskolan neskak eta mutilak banatuta egon ziren; Zendokizen, ostera, batera. 13 neba-arreba izan ziren.

3. Izekoren jatetxean lanean

- **Erref**: BRM-087/012
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:18:18. **Bukatu**: 00:20:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Bere izeko batek Ibarrangelun taberna-jatetxea izan zuen eta bera bertan hasi zen lanean gazterik. Behin bezero batekin gertatutakoa kontatzen du.

4. Ogia banatzen

- **Erref**: BRM-087/013
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:20:52. **Bukatu**: 00:22:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Bere izekoren taberna-jatetxean ogia egiten zuten eta ogia banatzen zuen etxerik etxe.

5. Gose sasoia

- **Erref**: BRM-087/015
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:22:27. **Bukatu**: 00:24:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Bizimodu gogorra ezagutu zuten gaztetan. Aurrean harrapatzen zuten lehena eramaten zuten ahora.

Transkripzioa
- Soledad: Bueno, ordun be bizi modu txarra, geuk, esatie. Pobriek, ez duu okin dirorik be-ta. Dxateko bez eta ezetako, bihar ta bihar ta bihar. Ta hamen gauz! Aillega garie […] ezebez!
- Bueno baie goserik eta?
- Soledad: Eh! Makiñe bat.
- Bizi txarra, bai?
- Soledad: Gosie? Hori neskato handidxek garizela gosie. Bai, gerrie ezan da ta gerrako bueltako.
- Katalina: Lapak dxan bihar. Orduen on zien lapak, neu Bermiora etorri baiño lapak on diz ta.
- Soledad: Txarra.
- Katalina: Orain ez dau baie.
- Soledad: Txarra gauzie, ni fabrikera sarri dxun nai, Katalin, sarri dxun nai fabrikera biharrien, amak dirurik ez ta neu gaztie sarri dxun nai dxan barik fabrikera.
- Katalina: Bertan hartun atun zatitxue neuk be bertan dxaten ezan dot.
- Soledad: Ta persona batek be, dxan igual sagarra aurretik dunak uzkille atrapa ta zeuk dxan gero. Sarri in dxuu hori. Benetan? “Esto es la verdad”. Ez duu okin e! Ez duu okin. Ezan gara pobriek, gu ezan garan halakuek. Bueno haulakuek be bai ta ez dun okitzen ezan, eskatuten ezan dotsagun beziñiri edo hareri edo ez daitz. Gero, kartillie eitten esan doskunien itsosuen, itsosokue, entrega. Harek emon dotsagunien, ta ostabere beste egunien zorrien ta haulan. “Así hemos empezau, asi hemos nacido y ahora que tengo que estar bien”, orain ondo on bidotena.
- Katalina: “Así tengo que morir”.
- Soledad: Orain hamen.

6. 13 neba-arreba izan arren, goserik ez

- **Erref**: BRM-087/017
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:26:36. **Bukatu**: 00:27:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Katalinen etxean 13 neba-arreba izan arren, ez zuten goserik ezagutu baserrian beti baitzuten zer jan. Bermeora neskame etorri zenean ere, Mokoneko aldatzera, ondo egon zen.

7. Eibarren neskame

- **Erref**: BRM-087/018
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:27:25. **Bukatu**: 00:29:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Bermeora etorri aurretik Eibarren egon zen neskame. Bertan gerra hasiko zelakoan etxera bueltatzea eskatu zuen eta amak ere etxera itzultzeko esan zionez, denbora gutxi egon zen.

8. Eibarko euskararekin arazoak

- **Erref**: BRM-087/020
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:29:38. **Bukatu**: 00:33:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Eibarren neskame zegoela, erraz ikasi zuen Eibarko euskara. Behin, errekadu bat egiten bidali zuen nagusiak eta "lekak" zertzuk zien ez zuen jakin, eta ezer barik bueltatu zen. Txakur handiari ere desberdin deitzen zioten.

Transkripzioa
- Katalina: Ta mutiltxue dxuten nintzen ni, neskak bertako enbrakaz, neure uniformetxugaz ta orduen ez daitz zapata harek okin banaue. Ba imie hartute dxuten nintzen kale-kale ta gero haurekaz henbrakaz batuten nitzen ta bertako idiomie ensegidakuen ikasi nauen. Etxera dxun naitzen amagaz entendidu ezin.
- Alaba: Eibarrekugaz?
- Katalina: Eibarrekugaz.
- Alaba: Horrenbeste gatza ezan da?
- Katalina: Bai, lekakaz beitu ze pasa dasten.
- Alaba: Konta.
Katalina: Eibarren neuen kridxada ta uzandriek bota, uzandriek esan: “hau baiño hurrau, hametik dxun ta han dakozu bentatik hau ekarri, hori ekarri”. “Ta hori zer da ba?” erderaz esan bihar. “A bakitz, esango dotsat, hametik killo bat hortik libra bat ondo”. Ta gero, beste egun baten: “Dxungo zara plazara ta ekarko dozuz lekak”. Pregunte eingo dot, ez datso gustaten preguntetie ta lekak, lekak, lekak, lekak. Ta ein dxasten ahaztu lekak, ez daitz ba zeuzer ein dxasten, distraidu ein naien ta ahaztu dxasten niri lekak. Baie hortarako ama okitzen nauen zera, txakurtegixegaz plazan, Isabel okin zauen ta ni "Isabel esan dost uzandriek ba haunek eta haunek eta haunek eruteko" zestillatxuegaz eta dirutxuegaz dxuten nitzen. Emoten dotsaten hareri ta ha etor ezan dasten gero, bueltak edo danak ta eruten dotsaten dana etxera edo, bai. Ta esan dost lekak ekarteko ba, ta gero beste gauze bat, danak on zien menos lekak. Hartun, “despues de que” lekak, lekak esaten ta ahaztu, ez nauen dxakin zertxuk dizen. Nik pregunte eitten ezan dot "hori zer da ba?" ta hau, ez dxasten ahaztuten, dxakitzen nauen zer dan ta, lekak, lekak esaten ahaztu. "Ez dotsu esan gehidxau ezer?" Ai ba la letxe ze esan dost ba! "Ezer esan dotsu gehidxau?" "Ba ez dakitz, ezebez gehidxau" Beragaz dxun naien ta "lekak non dauz ba?" "Ai ahaztu dast". Han dxun nai ostabere, lekak, lekak, lekak auntxek ez dast ahaztuko lekak, lekak, lekak, lekak ta resulta que uzandrik: "lehen zeittik ez dazu esan ba?" hainbeste leka.
- Alaba: Baiñie.

- Katalina: Txarkuteridxen aurrien jentie, "orain diñostazu hauri? on apur baten”. On ta on ta beste bat etorten ta nik haulan, “ene bada zer [...] lekak zertzuk ete dizen lekak”. Ta esan dau horrek: “baiñek”. Baie esan dosten neuk erosteko “ai nik ez dakitz, ni hamen egongo nai”. Ene bada galdu nai ni lekak eruteko, bera falta, eurek falta, baie ez dot dxakin lekak zertzuk dizen ta hamen datoz killo bat baiñegaz. “Horrek ezan die lekak?” Baie ez, berari preguntetigaittik, “erderaz ikasten etor zara hona?” Horrek arrabidxue emoten dost! Baia euskeraz be, bertan lekak nik ez nauen eguno be entzun ta holako gauza asko pasaten ezan dasten niri han. Txakur handidxeri, txakur handidxeri ez daitz zer, seme! Seme ez daitz zelan. Horren diruek be izenak okin dxauie.
- Soledad: Txakur handidxek?.
- Alaba: Hamen txakur handidxek baie beste herri batzutan beste izenak.
- Ibarrangelun zelan da ba txakur handidxe?
- Katalina: Ba, txakur handidxe. Ibarrangelun Bizkaidxen, baie ha Gipuzkoa ezan da.
- Ez da txori handixe, Ibarrangelun.
- Katalina: Bai txori handi, txori txikidxe hor da. Baie han ez! baie han semik.

9. Pildainak eta errepublikazaleak

- **Erref**: BRM-087/022
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:33:44. **Bukatu**: 00:37:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Gernika erre ostean sartu ziren nazionalak Bermeora. Nazionalak heltzerakoan heldu zen ogi zuria; ordura arte beltza zen. Pildainen eta errepublikanoen artean liskarrak egoten ziren. "Pildainak" abertzaleei deitzen zieten.

10. Guardien Pilarika eguna

- **Erref**: BRM-087/023
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:37:02. **Bukatu**: 00:39:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:
Guardien egunean, Pilarreko Ama Birjinaren egunean, guardiak dendarik denda joaten ziren jateko bila.

11. Milizianoak ez osteko zaintzan

- **Erref**: BRM-087/024
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:39:05. **Bukatu**: 00:41:46

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Errepublikanoek beraien kafetegia zuten Lameran. Gerraostean, gose garaian, milizianoak soloak eta jatekoak jagoten egoten ziren lapurretarik ez izateko. Baina, behin, Soledadek portuan ikusi zuen bat atun lata bat hartzen eta berak ere hartu zuen, eskubidea zuelakoan.

Transkripzioa
- Ta republikanuek non oten zien?
- Katalin: Igual etorten die zeure etxera be.
- Soledad: Lameran on da euren lekue, errepublikakue Lameran.
- Katalin: Edonon.
- Soledad: Euren eh, zentrue.
- Katalinen alaba: Zentrue. Batuten ezan dizen...
- Soledad: Batuten zandizen Batxokidxen faxistek, edo zerak nazionalistek.
- Katalin: Bai egidxe, Batzokidxe eurentzako hartun ezan zauien.
- Soledad: Republikiek Lameran, non dau e, Koyoten tabernie, han oten zan da republikie. Orduen oten ezan da bertako andrie Fernanda izena. Gizona ein dotsoien kartzelara eruen ta fusille, ein dotsoien Fernanda "por la republika!"
- Katalinen alaba: Republikanue ezan dalako denuntzidxe ta eruen.
- Soledad: Hauri inkisiziñue on da atziñe. Ha esaten bozun ha esaten dozule. Gerrie akaba danien gero, pasa da hamen, neuri pasa dast ta, akaba da gerrie gero postgerrie etorten da, ta guk ez dulez okin dirorik ta ni gaztie ezan naielez orduen atako nauen orduen edozer. Hamalau edo hamabost urte eukin nauen, gosie on dalez, on zien milizianuek bermiotarrak, milizianuek ortue dxabotekuek ta danak etxekuek, akordetan zara? Buano milizianuek. Milizianuek eitten ezan dau, dxaboten ezan dauien jentiek ez eruteko biberarik ez ostuteko. Miliziano batek non hartzin dauen bost killoko latie atunena, ta nik ikusi dotenien bost killoko latien hartzien, neu be dxuen ta hartzien hasi: "Zu geldik". “Zer geldik?" neuk ba. "Nik etxien dakotez gosek hiltzen jenti ez daku zerik eta, ta itzi ein biher dostazu hartzien". "Keba! Ez dozu erungo", "zelan ez dotela erungo? Zeuk bai ta nik ez?". Agarra latie [...] orduen ta, agarra latiri bost killokuri ta etxera! Atunena!
- Katalinen alaba: Nondik fabriketik, dendatik edo nondik?
- Soledad: Portutik, barkuen eruteko ezan da kapora ta.
- Katalinen alaba: Ai! Eruten dauie hara almazenalez.
Katalin: Ostuten fabriketatik.
- Katalinen alaba: Aldauenak aldauen eitten dau, oten ezan dizen dxaboten, ta zuk ikusi dozuniko bat ostuten zuk zer ein dozu, zeuk be..
- Soledad: Bera, milizianue, neure planta bajako goiko hirugarren pisokue ezan zan.
- Katalinen alaba: Klaro, zeu denuntzidxe ez zaitsuzelez zeuk be denuntzidxe.
- Soledad: Agarra nauen latiri ta neuk be eruen. Larga horreri, Tutu, larga horreri. Zelan largako dotsat nik horreri? Zeuk deretsue dakozu hametik hartzien, ba neuk be bai. Hartun ta etxera "Alabatxu, egunen baten hilko zaitsuzie danan artien" "ez dau ardure ama! Oin dxan eindo dogu /ingu/ ta!"

12. Lurrikara

- **Erref**: BRM-087/030
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:52:20. **Bukatu**: 00:54:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Katalinek gogora dakar gaztetan lurrikara bat bizi izan zutenekoa.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-03

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com